

## PRENTSARAKO OHARRA

18/11/13

### **Bizkaiko Batzar Nagusiek emakumeen eta gizonen arteko bardintasunagaz daukien konpromisoa indartu dabe, emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko Eguna dala eta**

Bizkaiko Batzar Nagusiek emakumeen eta gizonen arteko bardintasuna lortzeko konpromisoan aurrera egin dabe. Ekintzetako bat gaur egin da Batzarretako Administrazio Egoitzan, Batzarren Bardintasun Planaren barruan. “Bardintasuneko Alkarrizketa” bat izan da, azkenengo hilebeteetan **Unicef-Hazian** eta **BilbaoformArte** egiten aritu izan diran beharraren inguruan.

UNICEFen Euskadiko Batzordearen laguntzailea dan Hazianen eta Bilbao Formarteren prestakuntza taldeek euren azken hilebeteetako beharraren esperientzia azaldu deutsee bertaratu diranei. Behar hori ikastetxeakaz eta adimen urritasuna edo urritasun psikikoa daukien personakaz egin dabe, bardintasuneko balioen inguruan, Emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko eguna dala eta.

Topaketa honetan honeek hartu dabe parte: **Ana Otadui** Batzar Nagusietako Presidenteak; **Isidro Elezgarai**, UNICEFen Euskadiko Batzordearen presidentea; **Maidor Fernandez Azkorra** azterlan feministetan eta generoetakoan espezialista eta Unicef-Hazianeko begiraleak; **Asier Manero Alvarez** hezkuntza formalean eta ez-formalean ibilpide luzea daukan hezitzaile eta Unicef-Hazianeko begiraleak; **Ana Urgoiti Guisasola** Arte Ederretan lizentziatu eta “BilbaoformArte” hesirik bako Arte eskolaren sortzaileak; eta **Cristina Bacete Díaz** Hezkuntza Berezian diplomau eta “BilbaoformArte” hesirik bako Arte eskolaren sortzaileak. Batzarretako talde batzuetako ordezkariak eta Batzarretako behargin batzuk be bertan egon dira.

### BILBAOFORMARTE ERAKUSKETEAK

Aste honetan, Bizkaiko Batzarrek hainbat jarduera eta ekitaldi egingo ditue Emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko eguna dala eta. Eguen honetan, zemendiaren 15ean, 18:30ean, Batzar Nagusietako Presidenteak **ANÓNIMA** erakusketea inaugurauko dau Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzako Erakusketa Aretoan (Hurtado Amezaga, 6). Erakusketa horretan, adimen urritasuna edo urritasun psikikoa daukien artistek emakumeen figuraren eta gure gizartean emakumeek beteten daben lekuaren ganeko gogoetea egiten dabe.

### UNICEF “OSOKO TXIKIA”

Bariku honetan 10:45tan, bere historian bigarren aldiz, Gernikako Batzarretxeak umeen ganeko osoko monografikoa jasoko dau, Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatutakoa, Unicefegaz batera, Umeen Eskubideen Egun Unibersalaren –zemendiaren 20an– eta Emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko Egunaren –zemendiaren 25ean– bezperatan. 12 eta 14 urte arteko ehun ume baino gehiagok,

Bizkaiko ume guztiak ordeztuz, Umeen eta Nerabeen eskubideetan oinarrituta, genero indarkeriaren prebentzinoan behar egitearen garrantzia azpimarratuko dabe, ikasleen aniztasuna oinarri hartuta.

NOTA DE PRENSA

13/11/18

## **Las Juntas Generales de Bizkaia refuerzan su compromiso con la igualdad de mujeres y hombres con motivo del Día Internacional por la eliminación de la violencia contra las mujeres**

Las Juntas Generales avanzan en su compromiso por lograr una igualdad entre mujeres y hombres. Una de las acciones ha tenido lugar hoy en la Sede Administrativa de Juntas, en el marco del Plan de Igualdad de la cámara, ha sido una nueva “Conversación de Igualdad” en torno al trabajo que en los últimos meses han estado realizando **Unicef-Hazian** y de **BilbaoformArte**.

Los equipos de formación de Hazian, colaborador de UNICEF - Comité País Vasco, y de BilbaoformArte han transmitido a los presentes su experiencia trabajando en los últimos meses, respectivamente, con centros de enseñanza y con personas con discapacidad intelectual o psíquica en torno a valores de igualdad con motivo del Día Internacional por la eliminación de la violencia contra las mujeres.

A este nuevo encuentro han acudido **Ana Otadui**, Presidenta de las Juntas Generales; **Isidro Elezgarai**, presidente de UNICEF en el País Vasco; **Maidier Fernandez Azkorra**, especialista en estudios feministas y de género, y miembro del equipo de formación Hazian; **Asier Manero Alvarez**, educador, con recorrido en la educación formal y no-formal, y miembro del equipo de formación Hazian; **Ana Urgoiti Guisasola**, licenciada en Bellas Artes y fundadora de la escuela de Artes sin barreras “BilbaoformArte”; y **Cristina Bacete Díaz**, diplomada en Educación Especial y fundadora de la escuela de Artes sin barreras “BilbaoformArte”. También han estado presentes representantes de algunos grupos junteros, y trabajadores y trabajadoras de Juntas.

### **EXPOSICIÓN BILBAOFORMARTE**

Durante esta semana, la Cámara vizcaína desarrollará una serie de actividades y actos en torno al Día Internacional por la eliminación de la Violencia contra las mujeres. Este jueves, 15 de noviembre, a las 18:30 la Presidenta de las Juntas Generales inaugurará en la Sala de Exposiciones de la sede de Bilbao de Juntas Generales (C/Hurtado Amezaga, 7) una nueva muestra, *ANÓNIMA*. Una exposición en la que artistas con discapacidad psíquica o intelectual, reflexionan sobre la igualdad y contra la violencia de género.

### **“PLENO TXIKI” UNICEF**

Este viernes, por segunda vez en la historia, la Casa de Juntas de Gernika acogerá un pleno monográfico sobre la infancia organizado por las Juntas Generales de Bizkaia en colaboración con Unicef, en vísperas del Día Universal de los Derechos de la Infancia - 20 de noviembre- y del Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer -25 de noviembre-. Más de un centenar de jóvenes de entre 12 y 14 años, en representación de todos los niños y niñas de Bizkaia, subrayarán la importancia de trabajar, desde los derechos de la Infancia y la Adolescencia, la prevención de la violencia de género, de la mano de una diversidad estudiantil.